

Asteartean hasi zuten haurrek ikasturte berria

Gaztetxoak ez bezala, pozik bueltatzen dira txikiak eskolara malko askorik isuri gabe

Asteartean izan zen haurren lehen eskola eguna. Udako oporrak igarota batzuk lehengo jantzi dituzte mantalak eta besteak aurreko urteetako lagunekin bildu dira. Gehienak pozik eta alai joan dira eskolara, txikiak gurasoak lagunduta sartzen dira gelatan eta kideekin jolasean hasi eta gero gurasoak arazorik gabe agurtzen dituzte. Beraz, gehienak gogotsu eta ikasi eta jolasteko prest lehen egun hauetan.

Landaberri ikastolan aurtengo ikasle berriak 72 dira. Batzuk, bi urte oraindik ez dituzte bete baina dagoeneko lagun berriak ezagutzeko gogoz daude. Hiru urteko umeak 112 daude, batzuk iazkoak eta beste batzuk berriak, Landaberrin ikasle kupa bete egin dute.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxean 68 dira sartu diren bi urteko haur berriak eta lau

gelatan banatzen dira Zumaburuko eraikinean. Bertan hiru eta lau urteko gela bana ere badaude, egin dituzten eraberritze lanak eta gero, ikastetxea txukunagoa geratu da, ikasgela politak eta jangela berriekin. Toki geihasi egin dute eta aurten haur gehiagorentzako lekua dago. Sasoetan biltzen dira gainontzeko umeak 3, 4 eta 5 urtekoak gela banatan.

Gaztetxoek ere hasi dituzte eskolak, hauek txikiak baino gogo gutxiagorekin batzuei ikasturte gogorra datorkielako gainera. Datoren urtean zer egingo duten pentsatu behar dute eta horren arabera kurtsoa zaila izango da nahi dutena egin ahal izateko nota bila ibiliko direlako. Beste batzuek oraindik badute horretarako denbora, ikasteaz gain lagun artean egoteko aprobetxatu dute. •



Marijo eta Patriziaren gelako haurrek negarrik egin gabe hasi dute kurtsoa Landaberri ikastolan.



Zumaburuko eskolako hauek gela berriak estreinatu dituzte aurten.



Gazteria saila ikerketa egiten ari da Gazteleku bat egiteko asmoa duelako /4

KIROLA | 6

Udaleko kiroldegiak jardueren eskaintza zabala egin du datorren kurtzorako



Ikasturtearekin batera Euskararen Maratoiko prestakuntzak ere hasi dira /05



UDAL EUSKALTEGIA

2008-2009ko EUSKARA IKASTAROAK



Ikasturtearen iraupena:
2008ko irailaren 22tik
2009ko ekainaren 19ra.

Matrikulaldia: irailaren 1etik 19ra.

Ganbo kalea 1 · Lasarte-Oria · Tel. / Faxa : 943 361621 · euskaltea@lasarte-oria.org · www.lasarte-oria.org/euskaltea



Maiatzatik Irailera gauero* zabalik
Asteko menu berezia ikusteko:

www.goiegi.com

* inandea eta astelehena ezik

GOIEGI
Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78



Neure kabuz



Amaitu dira oporrak

Oporrak joan dira eta hemen gara, berriz ere, ikasi, berritu eta urteari bukaera eta hasera egoki bat eman nahirik. Haurrak eskolotara joaten ikusi ditugu, txikiak pena ere ematen digute, baina horrela antolaturik gaude gizartean. Haurrak ezik helduak ere bai, hizkuntzak, yoga, bidaiaik..., eta beste mila aukera. Hau dena egokia baino egokiago dela eztingo dugu uka eta egin ahalak egin behar ditugula ere, ezin uka, baina bizitzak egunerokoa dauka eta eguneroko horretan dago kakoa, eta hori bai dela ikasi, berritu eta urteari hasera eta bukaera egoki bat eman beharrekoa.

Dena ongi egon daiteke baina beharrezkoena geu eta geure egunerokoa sakonduz jabetzea da. Hemen lehen eta orain behar duguna, bakea da, zuzentasunez bizitzea eta hortik etorriko zaigun ongizatea. Egunerokoa dago arazoa. Gauza txikietan behar dugu bizitza burutu. Berritu beharreko gauza bakarra, geu gara eta geure ulermen eta garenaren betetasuna.

Amasa hartu dugu, lagunartea, etxeokak, bidaiaik..., eta zer lortzeko? Giroa aldatu, beste jende batekin egon, geure buruak baretu... eta zertarako? Betikoan erortzeko? Ez. Hemen betikoari gaurkoa ezarri behar zaio, eta gaurkoa dena, nik neuk asmatu behar dut eguneroko, eta egite horretan behar den gozoa eta poza aurkitzea. Arazoak arazo, ni hemen naiz eta naizen hau izan dadin, nahi dut bizi pozik eta saiatuko naiz egiten al dudan ongirik gehien.

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Itziar
Zorionak eta 3 muxu handi, famili guztiaren partetik.



Iñaki eta Julen
Lasarteko bi txapeldunei, ZORIONAK etxekoan partetik.



Uxue
Zorionak rubia!! 3 muxu potolo zure lehengusuen partetik.



Sandra
Zorionak zure laugarren urtebetetze eguneroko gurasoen partetik. Ondo pasa!!



Joana
Zorionak gurasoen, Enara, Maite eta aitona-amonen partetik.



Imanol
Zorionak gurasoen partetik.



Eneritz eta Aizpea
Zorionak biori famili guztiaren partetik.



Unax
Zorionak, muxu asko familiarren partetik.

Jaiotzak

- Ametz Martin Beitia, irailaren 5ean.
- Nerea Barrera Curiel, abuztuaren 31n.
- Alejandro Maria Rivas Agudo, abuztuaren 25ean.
- Sheena Iñigo Iñigo, abuztuaren 23an.
- Suhar Gil Negrete, abuztuaren 21ean.
- Ander Cristian Gordas, abuztuaren 15ean.
- Ruth Galan Ramos, abuztuaren 13an.
- Joseph Engel Chevez Solorzano, abuztuaren 5ean.
- Markel Garcia Garcia, abuztuaren 4ean.
- Unai Garcia Hidalgo, abuztuaren 4ean.
- Kevin Hernandez Martinez, abuztuaren 4ean.
- Xabier Lareu Iglesias, abuztuaren 1ean.

Heriotzak

- Luis Prieto Quintana, irailaren 7an 53 urte zituela.
- Andoni Valle Guijarro, irailaren 4an 29 urte zituela.
- Rakel Agirre Satostegi, irailaren 2an 64 urte zituela.
- M. Benita Muga Urdampilleta, irailaren 1ean 84 urte zituela.
- Fidela Martin Barroso, abuztuaren 31n 93 urte zituela.
- Paulino Carretero Castro, abuztuaren 29an 78 urte zituela.
- Benito Mugika Illarramendi, abuztuaren 16an 60 urte zituela.
- Ana Isabel Torrientes, abuztuaren 7an 40 urte zituela.

Sara Santos Cabaco, uztailaren 26an.
Oihane Belarteta Galardi, uztailaren 26an.
Unax Esnaola Fernandez, uztailaren 21ean.
Izaro Dominguez Passicot, uztailaren 20an.

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

- Urbarten garaje marra bat alokatzen da. Tel.: 943 363524 (Juli)
- Ria de Vigon (Cangas-Moaña), unifamiliarra den etxe bat alokatzen dut, terraza eta gune berdearekin. Merkea, abuztua eta iraila. Tel.: 690679810 (Maria).
- Bezero fijoak dituen eta martxan dagoen locutorio bat traspasatzen da Lasarte-Orian. Tel.: 666 773813.
- Pisua alokatzen dut, erdialdean, berritua. Tel.: 688 670442/ 680 216645.

Salerosketak

- Volkswagen California furgoneta salgai. T-4 modelua, 2,5 TDI txuria salgai. 2000. urtekoa, guztiz ekipatua eta oso egoera onean, bidaiatzeko aproposa. Tel.: 649 895858
- Panderoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Salneurria, 60 euro (943579565).
- Salgai trastero bat Zumaburuan. 5 metro karratu ditu eta lehioa dauka. Tel.: 677 983 068.

Lan-eskaiztzak

- Lasarte-Oriako Biyak Bat zahar etxeko gizonezkoen ile-apaindegian pertsona bat behar dute. Pelukeria tituluduna eta herritarra izatea baloratuko da. Hautagaiak bulegoan aurkeztuko beharko dira, astelehenerdik ostiralera 10:30etik 12:30era.

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4

- Neska euskaldun bat behar da irailan hasi eta epe luzerako 2 haur zaintzeko eta nohizbehinka etxeko lanak egiteko. Astean 10 ordu, astelehenerdik ostegunera 15:30etik 18:00etara. Tel.: 635755666 (Begoña)
- Begirale bat behar da ikasturte osoan lanean aritzeko. Baloratu: 366858 telefonora edo mezu bat bidali txintxarri@ttakun.com helbidera.
- Pertsona bat behar da haur bat zaintzeko astelehenerdik ostegunera 17:30-19:30- Lasarte-orian. Tel.: 699 243108.
- Txintxarri aldizkariak banatzaileen lan-poltsa bat osatu nahi du. Interesatuak deitu dezatela 943 366858 telefonora edo mezu bat bidali txintxarri@ttakun.com helbidera.

Lan-eskariak

- Emakume gaztea eskaizta da etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, eguerdiko 12:00etatik arratsaldeko 16:00ak bitartean, astelehenerdik ostiralera. Tel.: 661 182178.

- Neska bat eskaiztan da lan egiteko gogoarekin. Garbiketarako edo haurrak eta helduak zaintzeko. Tel.: 689 200 659.
- Emakume bat eskaiztan da arietako garbiketara lanak egiteko. Tel.: 626 877369.

Guardiak

- Ostirala, 12**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
- Larunbata, 13**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Igandea, 14**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Astelehena, 15**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Astearte, 16**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Asteazkena, 17**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Osteguna, 18**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Goiegi aldeko egitasmoa burutzeko hitzarmena onartu da Udalbatzarrean

TXINTXARRI

Udako etenaldiaren ondorioz, Udaleko zinegotziek ere ekin diote ikasturteari. Atzo ohiko bilkura egin zuten, jendaurreko ekitaldian. Besteak beste, 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorraren onespina eta Goiegiko Ibarrean egin behar dituzten lanen gaineko hitzarmen urbanistikoa onestu dute. EAE-ANVko adskribitu gabeko zinegotziek batzordeetan parte hartuko dute.

Udalaren eta Goiegiko Ibarrean lanak gauzatzeko dituzten enpresa-elkartearen artean izenpetuko den hitzarmen urbanistikoa aldeko 14 botoekin onartu zen ohiko bilkuran (PSE 8, EAJ 2, EB-Berdeak 1, PP 1, EA 1 eta LOHP 1). Hitzarmen honek deposito zaharraren ondoko partzelan frontoi bat eraikiko dela jasotzen du.

Europar Batasuneko Zuzentarauak

Europar Batasuneko Zuzentzarauen gaineko bi mozio aurkeztu zituzten. Lehena, Ricardo Ortega (EB) zinegotziak, Europar Batasunak onartutako Itzulera Zuzentzarauen aurka aurkeztu zuen, "arautegi arrazista bezain xenofobia delako eta oinarritzko giza eskubideen aurkako delako".

Iñaki Mugikak PSE alderdiaren izenean mozio alternati-



Sinatutako hitzarmenak deposito zaharraren ondoko partzelan frontoi bat eraikiko dela jasotzen du.

boa aurkeztu zuen eta onartu egin zen PSE eta LOHPko zinegotzien bozkekin. "Jakin bada-kigu, Estatu espainiarreko aradiak babes handiagoa ematen diela etorkinei eta hortik urrun dago arau hau. Baina, etorkinei buruzko politika bateratzeko pauso bat bada".

Bigarren mozioa PSE eta EBak aurkeztu zuten, hau Lanaldia Antolatze Zuzentzarauen aurka: "gehiegizko

lan-astea luzatu nahi dute. Araudi hau langileek lortutako eskubideen kontra doa". Mozioa onartu ondoren, herritarrei dei egin zieten urriaren 7an zuzentzarau honen aurka eta lan duinaren alde egingo diren mobilizazioetan parte hartu dezaten.

Galderak eta eskaerak

Txanpi Baztarririk herriko ikastetxeen inguruan galdetu

zuen. Batetik, Landaberrik duen arazoaz, hau da, haur gehiago ez direla sartzen, eta bestetik Delegaritzak Zumaburuko ikastetxean baimenik gabe burutu dituen lanen inguruan. Alkateari Landaberrin egindako bileratan zergatik ez den agertu leporatu zioen. Alkatea haserre agertu zen Delegaritzak udalarekin izan duen jarrerarekin. "Ez digute kontutan izan ezertarako eta

Zumaburuko ikastetxe lanak martxan zeudela deitu ziguten barkamena eta obretarako baimena eskatzeko". Honen harira, "eraikina ez da ikastetxearena bakarrik eta lanak egiteko ez dute Helduentzako eskolako zuzendaritzarekin hitz egin. Hauek lekurik gabe geratu dira burutzen dituzten ekintzak egiteko".

Ricardok Txanpik egindako atez ateko bilketaren gaineko galderari erantzun zion. "Orain arte hartutako konpromezu guztiak beteko ditugu. Galdeketaekin batera kanpaina informatibo bat burutuko dugu. Atez-ateko bilketa 2009ko aurrekontuetan jasoko da eta esperientzia pilotoa martxan jarriko da".

Herritarren Plataformako ordezkariak kalean jasotako herritarren hainbat kezka eta galdera aurkeztu zituen. Alkateak erantzun zion: Institutuko errepidea bi norantzkara izango da, inguruko lan guztiak amaitu ondoren; hiri busa martxan jartzeko konbenioa istear dago; haurren jolaslekuetako lurra aldatzen ari dira eta dagoneko Arranbiden eta Oztararen material berriak erabili dituzte; eta lurrazpiko zabor bilketarako edukiontzi batzuetan arazoak izan direla eta hauek konpontzerakoan gainontzeko edukiontziak martxan jarriko direla azaldu zuen Ana urchuegiak. •

Euskaltegietan izena emateko epea irekita

Lasarte-Oriako euskaltegiak izena emateko epea ireki dute irailan. AEK-ko Muntteri euskaltegietan kurtsoa urriaren 1ean hasiko da, hala ere, izen ematea urte osoan zehar egin daiteke bulegoan, 11:00etatik 13:00ak bitarte goizez eta 18:00etatik 20:00ak arte arratsaldean. Geltoki kaleko 17.ean. Klaseak goiz eta arratsaldean izango dira maila guztiarako, 1, 2 eta 3. perfilak eskuratzeko aukera dago, baita EGA ere. Euskalduntzeko maila guztiarako eskaintzen dira eskolak.

Udal euskaltegietan ordea, izena emateko epea irailaren 19an itxiko da eta kurtsoari hil bereko 22an emango diote hasiera. Bulegoa goizeko 8:30etik 19:15 arte egongo da



lazio ikasturteko Solaskideko talde bat.

irekita eta informazio gehigo behar izanez gero 943 36 16 21 telefonoan galdetu daiteke. Hemen ere, perfil guztiak eskuratzeko aukera dago eta gainera kurtsoa finantzatzeko beka daude, baldintza bakarra 16 urtetik gorako adina edukitzea da. Euskaltegiaren

barneko ekintzetan Solaskide programa gauzaten da euskara sustatu dadin eta ikasleak mintza praktikan trebatu daitezkeen. Herritar euskaldunekin jarduerak egiten dituzte ikasleek, horrela euskal giroan mugitzen ohitu eta mingaina askatzen ausartzeko. •



Elbarrituen aparkalekuak errespetatu

Lasarte-Oriako Udalak herritarrei elbarrituentzat bereziki dauden aparkalekuak errespetatu ditzatela eskatzen du "Aparkaleku hauetarako lizentziak Aldundiak ematen ditu eta askotan, baimena ez duten ibilgailuek aipatu aparkalekuetan aurkitzen ditugu".

Hau dela eta, Udalak gizaldea eskatzen du, izan ere, elbarrituei zuzendutako lekuetan aparkatzeak hauen irisgarritasuna mugatzen du. "Udaltaingoa zaintza handituko du, eta jokabidea zuzentzen ez bada santzioak jarri beharko ditu". •

Gazteria saila herriko gazteen artean ikerketa bat egiten ari da

■ Udalak Gazteleku bat egiteko asmoa du. Kokalekua Jaizkibel enparantza izan daiteke

Lasarte-Oriako Udalak Gazteleku bat egin nahi du. Hau dela eta, Gazteria eta Festetako sailak Kalexa enpresarekin batera, udalerriko gazteriaren inguruko ikerketa bat burutzen ari da, informazioa jasotzeko asmoz, Gaztelekuaren proiektua gauzatu ahal izateko. Ikerketa honek 14 eta 30 urte arteko lasarteoriatarren datuak bilduko ditu urriaren 15a bitartean.

Jesús María Zaballos Gazteria eta Festetak saileko lehendakariak azaldu duen moduan, "gazteen egungo egoera eza-gutzea da helburu nagusia: beraien gizarte perfila, eskaerak, beharrak eta jarduerak eta proiektu ezberdinekin duten konpromezua ezagutu. Azken finean, udalerrian gazteleku bat sortzeko proiektuaren inguruan duten iritzia jaso nahi dugu".

Azterketak bi zati izango ditu. Alde batetik, lasarteoriatarrek ondorengo gai hauen inguruan dituzten beharrak eta eskaerak ezagutzeko balioko du: aisia, ikastaroak, entseguak egiteko gelak, informazioa, etab. "Hori guz-



Erabaki gabe dagoen arren, Gaztelekua jartzeko Jaizkibel enparantza aukeretako bat da.

tia gaztelekuaren inguruan zein ideia duten jakitera zuzenduta egongo da eta modu horretan guztien gustuko espazio bat egin ahal izango da", azaltzen du Gazteria saileko lehendakariak.

Gazteen ohiturak ezagutu

Zaballosek aditzera eman duenez, herriko 14 eta 30 urte arteko gazteen artean ikerketa soziologikoa egingo dutela ondorengo gaien inguruan: osasuna, sexualitatea,

drogak, hezkuntza, ikasketak uztea, inmigrazioa, etxebizitza, emantzipatzea, kirola, aisia, etab.

"Azken finean, egunerokotasunean dituzten arazoak ezagutu nahi ditugu, izan ere,

gaztelekuaren helburua ez da soilik gazteen aisia kudeatzea izango, baizik eta gazteek izan ditzaketen arazoak konpontzeko laguntza eskaintzea ere" jakinarazi du Udal zinegotziak.

120 elkarrizketa

Kalexkako teknikariek ikerketa burutzeko erabiliko duten metodologiari dagokionez, elkarrizketak egingo dizkiete herriko hainbat arduradun eta adituei: Udaleko sail ezberdinetako teknikariei, kirola eta kulturako arduradun eta elkarteei, osasun zentroko adituei eta ikastetxeetako arduradunei.

Elkarrizketak egiteaz gain, Kalexkakoek "kaleko lana" egingo dutela aditzera eman dute udaletik: "gazteak non elkartzen diren, zertan igarotzen duten aisialdia, gazteen lokalak non dauden, etab. ezagutzeko. Gainera, 120 elkarrizketa egingo dituzte adin tarte ezberdinetan.

Jesús María Zaballosek herritarren laguntza eskatzen du ikerketa egiten laguntzeko, "modu horretan, denon artean landuko dugun proiektua izango da".

Gaztelekuak zein izaera izan beharko luke? Nolakoa izatea gustatuko litzaizuke?



Erik eta Iker

Oholtza bat eduki beharko luke musika taldeek ensaiatu edota kontzertuak emateko, barra edo txosna moduko bat zerbait hartu nahi duenak hartu dezan, egongela bat gustura egoteko, beste gelaren bat bilerak egiteko, ekitaldiak antolatzeko edota emanaldiak egiteko, eta leku bat norberak dituen gauzak, musika, liburu,... gordetzeko eta besteekin konpartitzeko. Hori oso polita litzateke. Gehiago ez zaigu bururatzen.



12-13 urteko neska kuadrilla

Gauza askotarako tokia izan beharko luke gazte lekuak: denborapasarako (mahai joko, karta, ping pong,...) musika entzuteko, eskalatzeko, ordenagailuan aritzeko eta telebista ikusteko,... Oro har, lagunekin egoteko lekua izan behar du, ikuskizun kontzertu eta horrelakoak antolatzeko ere bai. Lekua bat izan dezala kanpoan ere, hau da espazio itxi bat euria ari duenerako barruan eta beste bat librea, kanpoan.



Haizea, Naroa, Iratxe eta Ainhoa

Gazte guztientzako gauzak izan eta antolatu beharko lituzke gaztelekuak, eta eskatzen hasita handia bada hobe. Nahi duten gazte guztiak sartzeko nahikoa leku izan beharko luke, denborapasatzeko eta mahai jokozentzako lekua,... Kontzertuak emateko lekua izatea oso inportantea da guretzat eta herri erdialdetik aparte xamar baldin badago hobe, horrela zarata ateratzen bada inor ez molestatzeko.

180 laguntzaile behar ditu Euskararen VII. Maratoiak

Aurtengo edizioa urriaren 18an eta 19an ospatuko da Okendo plazan

Gero eta handiagoa ari da bihurtzen Euskararen Maratoia. Ediziotik ediziora berrikuntza gehiago sartzen dira; aurtengo berrikuntza nabarmenena otorduena da. Orain arte larunbateko eta igandeko afaria eskaintzen ziren, aurtengoz berriz, otordu guztiak plazan egiteko aukera izango da.

TXINTXARRI

Euskararen Maratoiak laguntzaileak behar ditu bai, gauzak txukun antolatatu ahal izateko. Beraz, antolatzaileek eskaera hori egin nahi dute lerro hauen bitartez. Jarraian, antolatzaileek emandako azalpenak dituzue, gutxi gorabehera zenbat lagun behar diren eta non behar diren laguntzaileak.

Asteburuan zehar hainbat eta hainbat ekintzetan laguntzeko eta parte hartzeko aukera izango da beraz. Adibidez, Denda bat ipiniko da otorduetako txartelak, kamisetak eta maratoiko abestien CDA saltzeko. Hiru orduko lau txanda egingo dira egun bakoitzeko eta hiru lagun behar dira txanda bakoitzean. Otorduak berriz, ez dira denak zerbitzatuak izango, bakarrik larunbat gaueko afaria zerbitzatu da; bertan 35 zerbitzari inguru beharko dira. Beste otorduak ez badira zerbitzatuak ere, mahaiak jarri eta kendu behar dira (10 lagun otorduko) eta janaria ere banatu behar da (4 lagun otorduko). Zerbitzatuak ez denez, edariak banatzeko ere txandak egin behar dira (6 lagun otorduko).

Hauetaz gain badaude beste zenbait lan orokorragoak direnak: garraio lanak, dekorazio lanak, begirale lanak... Guzti hauetan ere

laguntzaileak behar dira.

Web orria

Guzti honen berri zehatzagoa duzue www.euskararenmaratoia.com web orrialdean. Laguntzaileen beharrak zeintzuk diren azaltzeaz gain, aurtengo frogen nondik norakoak ere azaltzen dira. Gainera, izena web orritik bertatik eman daiteke.

Bestela ere, laguntzaile moduan aritu nahi dutenek, Ttakunetik (Geltoki kalea 4) pasa daitezke edo telefonoz deitu, 943 371448. Denon artean egingo dugu Euskararen 7. Maratoia! •



Irudian azken Maratoiko igande gaueko afalosteko dantza saioa; Bero-bero abestiarena, noski!

Dagoeneko kamisetak eskuragarri

Maratoi guztietan bezala, aurtengo edizioan ere kamisetak ipiniko dira salgai nahi duenarentzat.

Dagoeneko eskuragarri daude Ttakuneko bulegoan (Geltoki kalea 4) eta Jalgi kafe-antzokian.

Aurtengoz ere haurrek eta helduek kamiseta ezberdinak izango dituzte.



EUSKARAREN
MARATOIA 7

Sartu web orrian eta
ezagutu aurtengo
frogak!

Korritzeko modukoak!



www.euskararenmaratoia.com



Kiroltako agenda

FUTBOLA

Larunbata 13

10:00etan, Ostarar-Sporting de Herrera (Infantilen Oho-rezko maila) Michelinen.

11:30ean, Ostarar-Aforgia (Kadeteak neskak) Michelinen.

15:30ean, LOKE Texas Lasartearra-Urnieta (I. Jubenila) Michelinen.

17:15ean, Ostarar-Ursbil (II. Erregionala) Michelinen.

16:30ean, Lazkao-Ostarar (I. Jubenila) Arizti Handi, Lazkao.

17:30ean, Amaro-LKE Texas Lasartearra (II. Erregionala) Usabal, Tolosan.

Igandea 14

10:00etan, Real Sociedad B-Ostarar (Kadeteen Oho-rezko maila) Zubietan.

10:30ean, Intxaurdi-Ostarar (Emakumezkoen Liga) Cesar Benito, Donostian.



Kiroltako oharrak

Neguko ordutegia

Kirol Udal zerbitzuak jakin arazten du irailaren letik aurrera kirol guneek neguko ordutegia dutela. Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00tik 22:30etara irekia egongo da, larunbatetan 9:00tik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra; igerilekua, berriz, astelehenetik ostiralera goizez 7:00tik 12:30etara eta arratsaldez 14:00tik 21:30etara, larunbatetan 9:00tik 13:00ra eta 16:00etatik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra erabilgarria izango da eta Michelingo kirol gunea astelehenetik ostiralera 15:00tik 22:00ra, larunbatetan 9:00tik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra.

Ostarar Futbol Eskola

Ostararreko Futbol Eskolan uda baino lehen izena eman zutenek, gaur dute izen-emate orria uzteko azken eguna. Ostararrekoek jakinarazi nahi dute bulegoa lekuz aldatu dutela, ekaina geroztik. Aurrerantzean Geltoki kalea 25. zenbakian dago eta hil honetan 19:00etatik 20:00etara aurkituko duzue irekita.

LOKEko judoek aurreikuspen ona dute denboraldi honetarako

TXINTXARRI

Kirol guztien denboraldia has-tear dago. LOKEko judoek hurrengo astean dute lehenengo txapelketa, horregatik zur eta lur dabilza entrenatzen. Denboraldiaren aurreikuspena egiteko Gorka Aristegi entrenatzailearekin hitz egin dugu.

Aste honetan hasi dituzte entrenamenduak LOKEko 70 judoek, baina Gorka Aristegi esan digunez "denboraldiako lehenengo txapelketa hurrengo astean dugu, 23 urte azpiko txapelketa Valladoliden. Ostean Andorra, Girona, Bartzelona, etab. Beraz, iada hasi gara".

Txapelketetaz ari garela, iazko denboraldiko arrakasta espero dutela aipatu digu, "Espainia mailan 12 domina irabazi genituen eta aurten ere zenbakia berdindu edo gaintutako dugu". Izan ere, Aristegik dionez, maila guztietan dute aukeraren bat.

Honetaz gain, Espainiar Estatutik kanpo ere lehiatuko direla aipatu digu judoko entrenatzaileak. "Urtero Frantzia eta Italiara goaz. Frantzia-



ko lehiaketa egun bereko joan etorria da, baina Italiakoa berriz saria da eta hara joateko meritua egin behar dituzte", esan digu Gorkak.

Sanbo borroka

Sanboari buruz ere hitz egin dugu, izan ere iaz hainbat arrakasta izan zituzten borroka modalitate horretan. Aristegik esan digunez, "gure

kirola judo da, baina beste bi aukera ere baditugu, borroka olinpikoa eta sanboa. Sanboak judoaren antza handia du eta horregatik parte hartzen dugu". Eta zera atxikitzen du "bidaiatu eta jendea ezagutzeaz gain, entrenamendu gisa erabiltzen dugu. Esate baterako, urriar junior txapelketa izango dugu Madrilén".

Honela, bai judo, bai sanboan taldeaz arto agertzen da, ez bakarrik emaitzen gatik, baita taldea egin delako ere. "Urte batzuk daramatza jende berarekin lanean eta hauen konpromisoa handia da. Entrenamenduak, lehiaketak, etab. jakin mina sartu zaie. Hau ere oso garrantzitsua da guretzat", onartu digu Gorkak. •

Udal kirol jarduera eskaintza anitza 2008-2009 kurtsoan

TXINTXARRI

2008-2009 kurtsoarako Udal kirol jarduera eskaintza zabaldua aurkezten du Lasarte-Oriako kirol zerbitzuak. Heldu zein 16 urte beherako gazte-txontzako jarduerak dira eta urriaren 1an hasi eta ekainera arte iraungo dute.

Helduen eskaintza

Mantenimenduko gimnasia, egokitze fisikoa, banakako entrenamenduak, mantenimenduko igeriketa, aerobika, indoor txirindularitza, pilates, tonifikazioa, igerian ikas-tea edo igeriketa gidatua ditugu helduentzako kirol jarduerak, baina aurten stretching eta aquaerobika ere eskainiko dira.

Stretchingak beroketa eta luzatze ariketetan datza eta hauen bidez gorputza malgu mantentzen da. Aquaerobikan, berriz, musika jarraituz ure-

tan ariketa desberdinak egiten dira eta osasun kardiobaskular-arentzako onuragarria da.

Ikastaro hauek guztiak astean zehar egingo dira eta herritarren bermerako kirol bakoitzeko ordutegi anitzak egongo dira.


Haurren eskaintza

Gaztetxo eta haurrentzako jardueri dagokienez, aerobika, kirol ludoteka, igerian ikastea, alebina kirol jardueren sustapena eta 2001 eta 2002an jaiotakoentzat jostakirola eskaintzen dira.

Hauek astelehenetik ostiralera burutuko dira, alebina kirol jardueren sustapena salbu. Azken jarduera hau, 1997an eta 1998an jaiotakoentzat zuzendua dago, larunbatetan burutuko da eta udal kirol gune desberdinetan gainera.

Izena emateko epea

Kirol jardueren izena emate



epea irailaren 15ean hasiko da eta Kirolen Udal zerbitzuak jakin arazi duenez, jarduera gehienen talde kide kopurua mugatua izango da, beraz, azkar ibili.

Jardueri buruzko informa-

zio gehiago eskuratu nahiez gero kirol zerbitzuak kiroldegian duen bulegora 10:00etatik 12:30etara edo 17:00etatik 19:00etara gerturatu edo 943 376 182 telefonora deitzea daukazu. •

Egunero

Erakusketa

NOELIA CRUJEIRAS margolaria-
ren margoak erakusgai.
Jalgi kafe-antzokian, egun
osoan.

Ostirala, 12

Bakarriketa

Manuel Simancas artistak
hainbat bakarriketa umoretsu
eskainiko ditu Naiban taberna-
ko saioan.

Naiban tabernan, 23:00an.

GAZTELANIAZ

Larunbata 13

Kontzertua

AURKA TALDEA. Herriko Punk-
rock talde honek Jalgi kafe-
antzokian kontzertua
eskainiko du. 22:30ean.


EUSKARAZ

Osteguna, 18

Hitzaldia

Helena San Pedro psikologoak
*Garapen psikoafektiboa: Hau-
rren emozioa eta pentsamen-
dua* hitzaldia eskainiko du Otik
7ra urteko umeen gurasoei
kuztendua. Manuel Lekuona
kulturetxean, 18:00ean.

GAZTELANIAZ



*Guadalupeko Ama Birjinaren
festak asteburu honetan*

Festak ostiralean 21:30ean hasiko dira bandera igoerarekin eta afariarekin jarraian. Larunbatean haurrentzako ekitaldiak eta dantzaldiak izango dira. Igandean berriz, mezarekin eta hainbat txapelketekin emango diete amaiera Guadalupeko Ama Birjinaren festei.

ASTEBURU OSOAN EXTREMADURAKO ETXEAN

Eskutitzak

Zezen jaioz gero (I)

Zezen jaioz gero eta inguru-
an entzuten dituzun elkar-
riretak espainolez badira
nahikoa arrazoi duzu kezka-
tzeko. Hortik aurrera, zalan-
tzagarria den ohorea izango
duzu protagonista bihurtuko
baitzara, pasiozko istorio
batena, identitate kulturala-
rena, negozioarena eta zeure
interes propioentzat okerrena
dena, lintxamendu publikoa-
rena. Dena batera. Horrela
esanda iradokitzailea badirudi
ere, lerro hauek irakurtzen
dituen inor ez litzakeela
zugandik aldatuko jakitea
zer pentsatu ematen du.

Zezen jaioz gero amarekin
bizi zara, eta denboraldi
batez behintzat bakean utzi-
ko zaituzte. Garai horri begi-
ratuta, zezen izatea
interesgarria izan liteke.
Eguzki egun lasaia eta
euliak, kronograma arrunt
bat baino askoz gehiago ez
da behar. Esnatu, jan, kideek
putzura gerturatu, abaro
lasai bat gustuko artearen
azpian eta arratsaldeak kon-
turu ere egin gabe ihes egiten
dizu. Buelatzeko garaia.
Biharkoa beste egun bat
izango da.

Zezen jaioz gero, oso
desatsegina behar du, hilabe-
te batzuk besterik edukita,
familiaz banandu eta izuga-
rriko beroa egiten duen
leku batera eraman zaitzate-
la (ia ipurmasaileen burdin
gori hura jarri zizutenean
bezain beste bero), zeure
eguneroko pasaiarekin zer

ikusirik ez duen paisaia bate-
ra. Kolore iluna duen area
zoru gainean eta begiratzen
duzun tokira begiratzen
duzula, porlan eta zurezko
ikusmuga.

Arrotza zaizun eskenato-
kian zaldi gainean tipo bat
agertzen da eta gerturatu zai-
tezen zirikatzen zaitu egoera
berri eta nahasgarri horretan.
Zeure burua babesten saia-
tzen zara, baina orduan min
zorrotz bat sentitzen duzu
lepoko atzealdean. Segundo
batzuk besterik ez direla
pasa burdinaren kiratsa
sumatzen duzu: orduraino
gorputz barrutik zenuen
odola zauritik jario da. Pro-
bokazioak oraindik badirau.
Baina odol jarria eta egiten
duen beroaren ondorioz
arnasestuka zabilzan arren
erantzun egiten duzu.
Gauetz, berriro zeureekin
bultan, bizi berri duzun
esperientzia era ulertezin eta
traumatikoa gogoratzen
duzu. Ez duzu pentsatu ere
egiten, zuk lorik hartu ezinik
zabilzan bitartean, gizakiek
zezenketarako edo herriko
festetarako zezentzat katalo-
gatu zaituztela dagoeneko.
Patu bakoitzaren ondorioak
neurtu ahal izango bazenitu
ez litzazuke erraza izango
zeure akabera aukeratzea bi
estatus horietako batetan
oinarrituta.

* Astelehenean jarraituko du

ERREDAKIOAK ITZULIA

Kepa Tamames

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik
21:00etara

Irailak 27tik aurrera larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Manuel Lekuona kulturetxea

Oharrak

**Zaharren omenaldiko
bazkaria**

Gizarte zerbitzuak jakin arazi
du urriaren 5ean izango dela
zaharren omenaldiko bazka-
ria. Txartelak jasotzeko Villa
Mirentxura gerturatu astelehe-
netik ostiralera 10:00etatik
13:00etara, irailaren 12a arte.
Bazkarian parte hartzeko bal-
dintzak ondorengoak dira:
1942an edo lehenago jai-
ozana eta Lasarte-Oria errol-
daturia. Gorbaita esku-
ratzeko beharrezkoa izango da
nortasun agiria aurkeztea. Era
berean, nahiz eta 1942an edo
lehenago jaiotakoak ez izan,
aipatutako baldintzak betetzen
dituzten senar-emazteek izena
eman ahal dute.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Irailaren 29an Usurbilgo Lan-
bide Eskolan teoria zein
enpresa praktikaz osaturiko
OFFICE ikastaro bat hasiko
da. Txekinbidek antolatuta
eta ikastaroa ondoren aipa-

tzen diren giza taldeei zuzen-
duta dago: bere lehenengo
enplegua izan ez duten 35
urte bitarteko pertsonak, 12
hilabete baino gehiago lanik
egin gabe daramaten 40 urte-
tik gorako pertsonak eta lan
egin nahi duten emakumez-
koak. Informazio gehiago
943 364600 telefonoan.

**Margo eta marrazki
ikastaroak**

Lasarte-Oria Bizilagunen
elkarteak gaztetxo eta hel-
duentzat antolatzen dituen
margo eta marrazki ikastaro-
tako izen-emateko epea zabal-
du du. Beraz, interesa
duzuenok irailaren 15, 16 eta
17ean, arratsaldeko 17:00eta-
tik 19:00etara, Iñigo de Loyola
12. zenbakian behean duten
egoitzan.

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak ikasturte-
ari hasiera eman dio eta 6 eta
65 urte arteko herritarrak ani-

matu nahi ditu partehartzera.
Helduen entseguak astelehe-
na eta ostegunetan 20:00eta-
tik 21:30etara burutuko dira,
Arantzazuko Ama elizazpiko
aretoan. Alboka txiki haurren
abesbatzak, berriz, ostegune-
ro ordubeteko saioa izango
du 19:00etan hasita.

Oriako Karmengo Kapera

Abuztuko oporaldi garaia
pasa ondoren, irailean berri-
ro hasi dira mezak aurreko ordu-
tegi berdinarekin. Beraz
hemendik aurrera mezak
igandero goizeko 11:30ean
izango dira.

Erketz Dantza Eskola

Ezketz Dantza Eskolak jak-
inarazten du zabalik dela dan-
tza eskolan izena emateko
epea. Interesatuak pasa dai-
tezke, hilaren 8tik 11era,
astelehenean ostegunera,
biak barne, 18:00etatik
20:00etara Zumaburuko
eskoletan. Izena eman deza-

keten 2003. urtean eta ondo-
rengoetan jaiotako haurrek.

Odola ateratzeak

Udarako oporren ondoren
hilabete honetan bestetan
bezala odol ateratzeak hileko
azken astelehenean, irailaren
29an egingo dira Osasun Zen-
troan, arratsaldeko 18:30etik
21:00etara. Anima zaitzete,
odola ordezkazina da eta!

Xumela korua

Ikasturteari hasiera emanez,
gaurtik hasita, astelehenero
bilduko dira Xumela koruko
kideak. Astelehenero arratsal-
deko 19:30ean bilduko dira
Landaberri BHIko egoitzan.
Interesa duenak agertzea bes-
terik ez du.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

Dagokionari

Hauxe duzu zure
iritzia eta nahi
duzuna adierazteko
atal aproposa. Bidali
edo zuzenean ekarri
TXINTXARRI
aldizkaria.
Horretarako aukera
desberdinak dituzu;
telefonoz, 943-
366858 zenbakira
deituta, posta
elektronikoz
txintxarri@ttakun.com
helbidera bidaliaz.
Gure bulegora
ekarriaz
(Geltoki kalea 4).

Ttakunek begirale izateko ikastaroa antolatu da Lasarte-Orian

Ordu praktikoak Ttakuneko jardueretan betetzeko aukera izango dute begirale-gaiek

TXINTXARRI

Ttakun kultur elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz begirale ikastaroa antolatu du herrian.

Urtxintxa Aisialdiko Hezitzaileen Eskolako irakasleek eskainiko duten ikastaroa, teoriako 200 ordu eta praktikako 120 orduz osatzen da.

Pili Bermejo Ttakuneko aisiako arduradunak adierazi digunaren arabera, "ordu praktikoak Ttakunen burutzea aukera izango dute ikastaroko ikasleek. Hauen ostean, memoria aurkeztu beharko dute eta ikastaroa bukatzen dutenek Eusko Jaurlaritzaren titulu ofiziala eskuratuko dute".

Saioak larunbatetan

"Saio guztiak larunbatetan izango dira, goizez 10:00eta-

tik 14:00etara eta arratsaldez 15:30etan 19:30etara. Hone-la, urriatik maiatzerako iraupena izango du ikastaroak", esan digu Pili Bermejok.

440 eurokoa da ikastaroaren balioa, hala ere, Lasarte-Oriako herritarrek %9ko beherapena izango dutela aipatu digu ikastaroaren arduradunak.

Izena ematea

Honetaz gain, ikastaroan izena emateko baldintza bakarra 18 urte beteak edo ikastaroan zehar betetzea dela aipatu du, baita ikasle kopurua mugatua izango dela ere, 30 ikasle gehienez.

Ikastaroaren izena ematea Ttakuneko bulegoan egingo da eta aurkeztu beharreko agiriak NANren fotokopia, ordainagiria eta argazkia dira. Epea irailaren 19an bukatzen da.

Ikastaroari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, Ttakuneko bulegora gertura-

tu, 943 371 448 telefono zenbakira hots egin edo aisia@ttakun.com helbidera mezua bidaltzea besterik ez daukazue. •



Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
% 40 - % 75
2008-09

ona eta merke

Edozein lasarteariarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Ganbo kalea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 19ra

Munterri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aeknet.net
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 26ra

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

